


Hueto Arriba - Aperregi

10 Km



Kokapen geografikoa

Uribarri Ganboako urtegiak, giza kontsumorako Araba eta Bizkaiko ur erreserbarik handienak, bizia ematen dio gizakiak paisaian egindako aldaketak aprobetxatu dituen ingurune bati eta ingurumen balio handia duen hezegune bilakatu da.

Arabako Lautadan kokatutako urtegi honek Zadorra ibaiaren arroko urak biltzen ditu. Arro horrek Arabako iparraldeko isurialdeen banalerroko mendi hegaletatik datozen ibaiadar eta errekek bideratzen ditu. Bertan elkartzen dira iparraldetik, Elgeamendi, Aizkorri eta Aratz mendietatik, datozenak; eta hegoaldetik, Entziako mendilerrokoetatik datozenak.

Urtegia eragin ozeanikoaren eta barnealdeko klima kontinentalaren arteko trantsizio gune batean kokatuta egoteak mesede egiten dio biodibertsitateari eta hainbat ingurunetako espezieak aurki daitezke bertan. Erkametz basoek, erreka eta ibaien ertzetako erribera landareek, ur xafla handiak dituzten uretako inguruneek, labore lurrek eta herrigune txikiek ahalbidetu egiten dute giza erabilera eta natura baliabideen zaintza uztartzea.

Fauna eta landareria

Animalieei dagokionez, espezie nagusiak dira: Orkatzak, basurdeak, basausoa, eperrak eta azeriak. Bertako abere nagusiak zaldiak eta beheiak dira.

Uretako animaliei dagokienez: Black-bass, amuarraina, karpa, lutxoa eta barboak dira nagusi.

Datu historikoak

Industrializazioaren eraginez gero eta gehiago haziz joan zen elektrizitate eskaera eta etengabe haziz zihoan populazioa urez hornitzeko premia izan ziren 1926an Manuel Uribe-Echevarriak Uribarri Ganboako urtegia egiteko lanak baimentzea eskatzearen arrazoiak. Hala ere, eskaera hori ezetsi egin zen 1928an, ez zelako egokitzat jo ureztatzea handitzeko asmoa zegoen arro bateko urak desbideratzea.

Garai hartan, Ganboako harana osatzen zuten honako herri hauek: Azuak, Garaiok, Landak, Larrintzarrek, Mendixurrek, Mendizabalek, Langara Ganboak, Oreninek, Uribarri Ganboak eta Zuhatzu Ganboak. Biztanleak, 1940an 630, nekazariak eta abeltzainak ziren gehienbat.

Urtegia egiteak haraneko herri gehienei eragin zien, urtegiak 1.874 hektarea hartu baitzituen. Mendizabal, Landa eta Zuhatzu Ganboa erabat urperatuta geratu ziren; ez hala, Garaio, Azua, Uribarri Ganboa, Langara Ganboa eta Orenin, ura ez baitzen azken horietako hainbat baserritara iritsi. Hala ere, Orenin, esaterako, sarbiderik gabeko uharte bilakatu zen. Edonola ere, biztanle gehienek beren herrietatik alde egin behar izan zuten, beren lurak ur azpian geratu zirelako.

IBILBIDEA

0 Km. / 0 h. 0. Embalsearen behatokitik hasiko dugu ibilbidea, Urbinako puntarantz.

2 Km. / 20 min. Urbinako puntan gaudenean, inguruneari begiratzeko tarte hartuko dugu. Ullibarri Gamboara jeisten hasiko gara..

8 Km / 2.15h. Ibilbide berdeari jarraituz joango gara Landaruntza.

10 km / 3 h. Llegada a Landara iritsiko gara eta bertan lasaiune bat hartuko dugu inguruneari begirada bat botatzeko Estadiora bueltatu aurretik.